

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1996ko urriak 11

Usurbil, 5. Zenbakia



**KATEAK LANGARA
ESKUBALOIAN**



JAIOTZAK



Jaiotzik ez da egon hamabostaldi honetan, baina irailaren 28an 11 haur bataiatuak izan ziren.

Bestalde, 3. alean Maira Riveroidatzi bagenuen ere, haurraren izena **Haira Rivero Arrieta** da.



EZKONTZAK



argazkia: Ekaitz

Maria Jose Jimenez Peña (Santutenea) eta **Juan Carlos Fierro Cardo** (Lasarte-Oria) (96-09-21) **Aintzane Urkia Miñes** (Izarra etxea) eta **Jose Miguel Cao González** (Hernani) (96-09-28) **Ana Maria Martín Alberdi** (Txikierdi) eta **Jose Javier Blazquez** (Lasarte-Oria) (96-09-28) **Ramon Lertxundi Ibarguren** (Kalezar) eta **Beatriz Hernani Zabalo** (Kaleberri) (96-10-05) (Argazkikoak)



HILDAKOAK



†96-09-27 **Angel Irureta Ibargoien**. 83 urte. Kaleberri.



Hemendik aurrera jaiotza, ezkontza edota hildakoen argazkiak argitaratu nahi badituzue, gurekin harremanetan jarri zaitezke.



- UDALA
- UDALTZAINGOA
- ANBULATEGIA
- UDARREGI IKASTOLA
- AGERIALDE IKASTETXEA
- OIARDO KIROLDEGIA
- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA
- ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

- 34 19 51
- 36 11 12
- 36 20 13
- 36 12 16
- 36 38 85
- 37 24 98
- 37 15 94
- 37 20 01

- TAXI GELTOKIA
- D.Y.A.
- GURUTZE GORRIA
- GURE- PAKEA EGOITZA
- GURE-ELKARTEA EGOITZA
- ARRATE EGOITZA
- EUSKO TREN INFORMAZIOA -
- NOAUA! ALDIZKARIA

- 36 21 78
- 46 46 22
- 27 22 22
- 37 32 28
- 37 17 51
- 36 63 40
- 47 09 76
- 36 03 21



USURBILGO UDALA

Aldizkari honek
Usurbilgo Udalaren
laguntza jaso du

**Dagoeneko 231 usurbildar
bazkide ditu Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!**



HERRIKO
DENDA
ETA
ZERBITZUAK
ERABILI

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua! Kultur Elkarte.
Kale Nagusia, 27 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. (943) 36 03 21.

Zuzendaria: Olatz Altuna. **Kazetariak:**
Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Nere
Amenabar, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain, Begoña Zubiria
eta Amagoia Mujika. **Administrazioa:**
Arantxa Usaralde, Aitor Pikabea. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna, Garikoitz Udabe,
Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia
Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz,
Mertxe Olaizola.

Maketazioa: Susana Martin. **Argazkia:**
Joxe Antonio Labaien, Juan Luis Izeta.
Informatika: Pili Lizaso. **Banaketa:** Mertxe
Jimenez. **Tirada:** 2.000 ale. **Sukaldaria:** Joxe
Mari Sarasola

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Industrialdea 1 - 2,
20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere
gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-
men eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

2. **Gazi-Goza-Geza** (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak)
4. **Zer irizten?** (Daniel Palacios)
- Ika-mika** (gutunak)
5. **Berriketan** (Mari Karmen Azpiroz)
- Txirrikitutik** (argazki albistea)
- 6-7. **Kalejiran** (auzoak)
- 8 **Herorrek esan** (inkesta)
- 10-11. **Erreportaia** (Iskanbilak eskubaloian)
- 12-13. **Porrusalda** (berri laburrak)
14. **Izerdi patsetan**(kirolak)
15. **Herriko taldeak** (EHE/Trikiti eskola)
- 16-17. **Agenda**
18. **Lehiaketa-Komikia** (Iban Salsamendi)
19. **Harpidetza orria.**



Usurbilgo Lanbide
Eskolak baliabide eta
aukera desberdinak
eskaintzen dizkie berta-
ko ikasleei.

argazkia: HIK Kosi

MAHUKA



GAZTE DENDA

Orain, neguko
puntako m

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13


KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!

Zer irizten?



Daniel Palacios
Perretxikozaleak Usurbilen

Usurbilgo herriak Mikologi-zale ugari ditu. Hauetatik asko, 1968. urtetik aurrera "Tripaki Mikologi Taldeak" eginiko hedapenagatik eta "Izadi Zientzia Elkartek" ondorengo urtean eginiko lan handiarengatik sortu ziren. Egun, herritarren kopurua eta kontsumitzen diren perretxiko mota desberdinak kontuan hartzen baditugu, perretxikozale hauen ezagutza Euskadiko altuenetarikoa dela esaten ausartu

gaitezke.

1985. urtean jadanik, Izadi aldizkarian artikulua bat idatzi nuen, 1983-84 denboraldian Usurbilen kontsumitu ziren 129 perretxiko moten zerrenda agertzen zelarik. Gaur egun, produktuaren kalitate nahika kopuru hau 100 ingurura jeitsi arazidu. Ez dago batere gaizki, izan ere, kontsumitze gaiaetan Usurbil Euskadiko herrien artean buru dela menturatu baitezakegu.

Bestalde, toxikazio kasuak gutxi izan badira ere, hasiberrien kopurua gorutz doala eta horren ondorioz zalantza egoeretan nora joan ez dakitela ikusten dugu jendea askotan. Hori dela eta, nire burua usurbildar guztiei eskaini nahi diet eta edozein zalantzaren aurrean niri kontsultatzera gonbidatzen zaituztet.



Oraindik alfabetatu gabe?

Guraso Eskolatik irakurle guztiengana jotzen dugu, alfabetatzearen inguruko argibideak emateko. Lehenik eta behin argibide batzuk eman behar ditugu:

TRANSMISIOA: ikastaro hau, eskolan zein ikastolan, euskal eredutan matrikulatu dituzten haurren gurasoei zuzendutakoa da. Ikastaro honen helburua guraso eta seme-alaben arteko harremana euskalduntzea da. Gurasoek hurrekin batera ikas dezaten, bai beraiei laguntzeko eta baita beraien laguntzaz ere.

Astelehenetik ostegunera, 2:30etatik 4:30etara izango da ikastaroa. Ume txikiak dituztenak ere etor daitezke, euskal-

tegia haurtzaindegi zerbitzua ere badago eta.

ALFABETATZEA: ikastaro hau, euskaraz idatzi eta irakurtzeko erraztasunik edo ohiturarik ez duten euskaldun zaharrei zuzenduta dago. Jakin badakigu, zoritxarrez, euskaldunok orain dela gutxi arte ezin izan dugula gure hizkuntzan ikasi, irakurri...; gaizki ikusia egoteaz gain zigortua ere izan baita. Orain, aukera ederra daukagu euskaltegia hori modu erraz eta atseginean egiteko: euskal prentsa, liburuak eta abar irakurtzeko ikastaroa dugu hau; horretaz gain idazmena ere landu eta gure kulturaren hainbat arlotan sakondu.

Astelehen eta asteazkenetan, 2:30etatik 4:30etara. Eta astearte eta ostegunetan,

6etatik 8etara, edo 8etatik 10etara. Bi ikastaro hauek udalaren laguntza jasotzen dute.

Beraz, badakizue. Ez esan gero aukerarik ez dagoenik. Usurbilgo AEKra gerturatzea besterik ez duzue. Bertan izena eman, eta kitto. Gauza errazagorik ba al dago ba?

Guraso Eskolatik animatu egiten zaituztegu alfabetatzera. Gure ama hizkuntza dena guztion artean zaindu eta eraiki behar baitugu.

USURBILGO GURASO ESKOLA

Edonork edozertaz idatz dezake; gutunak gehienez 12 lerrokoak. Helbidea: Kale Nagusia, 27. Tel. 36 03 21. Gutunak ezizenez sinatu daitezke, baina izen-deiturak eta ENAren zenbakia beharrezkoak dira.



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

Ikastolarako materiala

K/ Etxebeste, 1
Tel.: 36 11 15

USURBIL
(Gipuzkoa)

Eraikuntzetarako:

Haritza Piñu Alertzea

Altzariak egiteko:

Haritza Lizarra
Gereiza Gaztaina

M^a KARMEN AZPIROZ

Urdaiaigako barazki saltzailea

Goizean goiz esnatu, gosalduta, eta Donostiara lanera.

Bai, lau t'erdietan esnatzen naiz egunero. Ordu honetan ordea ez dut gosaltzen. Baso bat ur hartu etxean, Donostiara joan, eta zazpi t'erdietan kafesne bat hartzen dut.

Zein da gehien saltzen den barazkia?

Egunero egunero eraman beharrekoak porrua, azelga eta letxua dira. Eta gero garaian garaikoak.

Zenbat urte dira egunero egunero Bretxan barazki saltzen zabilzala?

Duela hamasei urte hasi nintzen salmenta lanetan Donostian.

Negutegiekin abantaila ederra.

Dudarik gabe. Orain ordea kanpoko garaia izaten da. Negurako izaten dira negutegiak. Horiek ere, baldintza asko dituzte: hotz handia egiten duen, haize boladak, etab...

Zenbateko ekoizpena (produkzioa) duzue?

Begira; gure gizonak niri bi eta sei "zienta" artean osatutako bandejak prestatzen dizkit egunero. Bi. Berak prestatu eta nik saldu.



Lan asko ematen al dizu honek?

Bai. Dedikazio handiko lana da. Fabrika batean bezala, zerbait nahi baduzu, lan egin behar da.

Eta bizitzeko adina ematen du?

Asko jo behar da famili bat aurrera ateratzeko. Gauza asko jarri behar dira, negutegiak, etab... udaran lan eta neguan jai eginez ordea ez dago aurrera egiterik.

Afiziorik?

Egia esan behar badut, saltsera samarra naiz. Beharrean dagoenari laguntzea gustatzen zait. Hori da nire afizioa.

Zure arloan gazteak nola ikusten dituzu?

Gazteari lagundu egin behar zaio. Lur sail asko dago oraindik lantzeko. Nik uste dut udaletxeak zerbait egin beharko lukeela hauei laguntzeko: sailak jarri piperrak lantzeko,...

Telebistan zer duzu gustokoan?

Goenkale ikusten dut batzuetan. Hori dut gustoko.

Noiz egin zenituen azken oporraldiak?

Pilariketan Errioxara joan ginen hiru egunetarako.

Berdura ala potajea? Arraina ala haragia? Sagardoa ala ardoa?

Lehenengotik biak gustatzen zaizkit. Bigarrenetik, arraina eta edaria, dudarik gabe, sagardoa.

Aginagarrak indartsu zebiltzala baina oraingo honetan marka guztiak hautsi dituzte. Enborra mozteaz gain, aizkora bera ere hautsi zuen aizkolari honek. Kontuz ibili beharko dugu asteburu honetan ere Aginagara hurbiltzen bagara.



argazkia: Ekaliz

J
xirikitutik

SANTUENEA



Alfons Vidal

Irailaren erdian egin ziren Santueneko festak ez zuten arrakasta handia izan Usurbilen. Ez zen jende asko izan festak iraun zuten hiru egunetan, baina bertakoek oso ongi pasa genuen. Giro onik ez zen faltan bota santuenetarron artean.

Bestalde gas hodiak (tubok) jartzeko lanak aurrera doaz. Orain arte Oria ibaiaren inguruan aritu badira ere,




jadanik Santueneko kaleetan dabilta lanean langileak. Beraz, egun hauetan, nahiko zarata izango dugu gure artean.

Katuez ezin ahaztu, izan ere, azken hilabeteetan katu ugari ikusten dugu Santuenean. Jendea oso haserre dabil katuen kontu honekin, edonon katuak topa baitaitezke. Barregarria badirudi ere, ez da txantxetako gauza. Katuak edozein txokotan sartzen dira, eta han edo hemen, beti katuak begi bistan. Eta orain gainera, negua dator. Neguan egiten duen hotzarekin nonbait sartu behar izaten dute, ez dute leku jakinik eta berotasuna nahi izaten dutenez kotxeetako motorretan

sartzen dira. santuenetarrok kontu handiz ibili, kotxea arrankatzerakoan kotxean katurik baduzun begiratu.

Azkenik, amaitzeko, ezin ahaztu zubiko semaforoaz. Urdaigako festak zirenean, norbaitek puskatu egin zuen, eta oraindik ez dute konpondu. Horrela, argi berdea ikusi beharrean horia ikusten da.

URDAIAGA



Leire Atxega

Intxaurrak bail, baina beste-en intxaurrak bakean utzi!. Goizeko ibiltariak txoratzen jeikitzen dira, egingo duten ibilbidean intxaur poltsa pare bat lapurtzeko asmoz. Santuenea, Erribera, Txokoalde eta Urdaigako baserrien inguruan dauden intxaurrak inoren baimenk gabe hartzen dituzte.

Benetan mingarria da hone-lako ekintzak ikustea, lotsa gutxiarekin egiten baitute egin beharrekoa. Hau dena errespetua galdu delako gertatzen da, errespetu pittin bat izango balute ez litzateke horrelakorik pasako.

Mesedez! bakean utzi beste-en intxaurrak, eta bidean topatzen dituzuenak baztarrean utzi. Neguan intxaurrak jateko grina sortzen bazaizue, baserritarrari eskatu, pare bat kilo erosi edo zure lurretan intxaurrondoak landatu. Zurea ez dena ez hartu, eta arren errespetatu. Intxaur batetik hasten da dena.

Bestalde, aurreko alean esaten nizuen Juan Mari

Etxabeguneri kotxea lapurtu ziotela, baina oraingoan berri hobearekin nator. Izan ere, Lasarte inguruan agertu zen.

KALEZAR



Pedro Mari Matxain

Pilarikak inguratzen ari zaizkigula eta, ehiztariak ere eskopeta nahiz kartutxoak preparatzen hasi dira. Oinetakoak anketan ondo jarriak, eta terrenoei egokituriko jantziekin, ehiz txikiari ekiteko prest, hau da, uso, eper, oilagor, birigarro bila. Beti gordezten dira oporretako egun batzuk kanpora ehizera joateko, hemen oso gutxi baitago.

Aurten atera duten lege berriaren ondorioz, hemendik aurrera leku libreetan ez da ehiza egiterik izango; honek esan nahi du erremediorik gabe koto batean sartu behar duela ehiztariak. Hau ikusita zerbait pentsatu beharko da.

Usurbilen pasarako ehiza egiteko toki onenak Bentazikin, Zelaiaundi, Ibarrola eta Ugartetxiki dira eta ehiztariak ederki moldatzen dira, aurrez grabaturiko txori kantuen bidez, hegaztiak behera jeitsi daitezten.

Beraz, bertako ehiza birpopulatzeko asmorik badute, larrea jaten dutenak beharko dira, ez baitute goserik pasako.



ejiran

TXOKOALDE




**Iñaki
Labaka**

Orain dela hiru aste, egunkarian egunkarian egin zioten erreportaje batean, Urtineako Juan Joxe Arrospidek perretxiko bila kanpora joaten zela adierazten zuen. Ze erremedio, hemen behintzat, oraingoz, perretxiko biltzen lan handirik ez da izan.

Iraileko lehenengo egunetan onddo ugari eskuratzeko aukera eduki genuen. Ondoren, perretxiko zaleak sarritan ahalegindu dira Andatzako txoko guztiak arakatzen, baina gibelurdin batzuekin eta gaztaina mordo batekin etxeratu behar izan dute. Harrigarriena da, gure inguruko txoko gehienak pinuz josita egon, eta aurreko urteetan oso ugaria izaten den niskalorik ez egotea. Hala ere animorik ez galdu, adituek udazken sasoi bikaina iragaritzen baitute.

Sagar uzta, ordea, oso ona izan da aurtengoa. Illunbe sagardotegiak aurten ere auzoko sagarrondoan jabea, Errementaldegia, Portu, Izagirre... sagarrak erosiko dizkie. Orain dela gutxi sagarra jotzen hasteko asmoa agertu dute, baina sagarrondo jabeak orain hasi dira sagarrak biltzen. Berraiartzan aldiz, bi aldiz jo dute sagarra dagoeneko. Hemendik aurrera tolaletan izango da nahikoa lan edari gozo hori egiten.

ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

Eta orain San Praiskuen txanda... Festa giroak Usurbilgo auzo gehienak bisitatu ditu jadanik; Kalezar, Zubieta, San Esteban, Santuenea..., baina noiz iritsiko ote da Atxegalderra?

Garai batean, orain dela urte batzuk, atxegaldetarrok ere bagenuen gure jaiez gozatzeko aukera. Hasiera batean ekainean, eta geroa-go irailean, suziriek esnatzen gintuzten. Buruhandiak ere hor ibiltzen ziren gora eta behera, beste guztiak ihesean ibiltzen ginen bitartean.

Auzo elkartearen ekimenez sortu ziren festa hauek auzotarrak elkar ezagutzeko aukera paregabea suposatzen zuen. Hala ere, talde askotan gertatzen den moduan, ideologia ezberdinak aurrez-aurre topo egin zuten, elkarte piskanka-piskanaka desagertuz. Festa gogoia denok dugun arren, jaien antolakuntza ez da txantxetako, eta nagikierraren ondorioz, Atxegalden festak desagertu egin ziren.

Bukatzeo ohar bat nire auzokideei. Atxegaldeko kontuen berri baduzu hurbildu niregana, gusto handiz entzungo dizut eta.



KALEBERRI



**Nieves
Aranburu**

Nire lehenengo idazkia kexa batekin hasi behar dut. Kaleberrin zebrabideak ez dira errespetatzen. Kalea zeharkatu nahi duen edonork, kontu handiz ibili behar izaten du. Kotxeak abiadura handiz igarotzen dira, kale nagusian bereziki, eta nahiz eta oinezkoentzat pasabideak egon, hauek ez dira errespetatzen. Gogoratu behar da, zebrabidea dagoenean kotxeak gelditu egin behar duela, eta



oinezkoari pasatzen utzi. Beraz jakinarean gainea zaudete, ahaztuta bazenute behintzat.


Bestalde Orkoi zapatadenda berriz ere ireki dute. Jabe aldaketaren ondorioz denbora batean itxita egon ondoren, zapatak nahiz zapatilak erosteko aukera duzue urriaren hasieratik.

Kale berdinetik atera gabe beste aldaketa baten berri eman beharrean nago. Irrati puba aspaldi honetan itxita dugu. Lehengo jabeek utzi zutenetik itxita egon bada ere, laister batean irekiko dutenaren zurrumurrua dabil kalean. Urrian zehar lanean jardun ondoren egun hauetako batean irekiko dute.

Azkenik, ezin ahaztu Gaztañazpi auzunean egiten ari diren lanak. Ezindu fisikoek asko eskertuko dute amaitzen dutenean.

H

erorrek esan



Luis Azurmendi


Perretxikoak munduko gauzarik onena dira. Niri bai jatea eta bai prestatzea gustatzen zait. Esan didate galenpernak esnetan eduki lehenik eta gero arrautza-irinetan pasata primerakoak geratzen direla.



Pedro Muñoz

Olarriondo

Ez naiz bila joaten eta jan ere ez ditut egiten. Etxera ere ez ditugu ekartzen, inoiz ez gara zaleak izan.



Emilio Barcena

Olarriondo

Nik baka-rrik bi perretxiko mota ezagutzen ditut: niska-loa eta gibelurdina. Arratzain eta San Estebanera joaten naiz batzutan perretxiko bila. Gero nere emazteak primeran kozinatzen ditu.



Iciar Urkiri

Olarriondo

Ez zaizkit perretxikoak gustatzen, nire senarrak atsegin ditu baina niri prestatzea gustatzen ez zaidanez, ez ditugu etxean jartzen.



Javier Fernandez

Etxe-aldia

Bai, perretxikoak jatea gehiago gustatzen zait. Nire gogokoenak txanpinoiak dira, izan ere amak oso onak prestatzen ditu.

Perretxikoak bildu ala jan, zer nahiago duzu?



Koro Zubizarreta

Atxegalde

Niri prestatzea gehiago gustatzen zait, bestela ez ditut ezagutzen. Etxean haurrak ez baina gu oso zaleak gara. Nik pertsonalki txanpinoiak ditut gustokoen.



Saioa Erro

Kalezar

Niri perretxikoak jatea eta prestatzea gustatzen zait gehien, batez ere gibelurdinak eta onddoak. Aitarekin ere joaten naiz bila natzuetan Nafarroa aldera.

TABERNA JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

USURBIL
O P T I K A




Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxe: 37 02 69(Gipuzkoa)



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



OKINDEGIA
KALE NECYSLA 25
TEL. 36 12 20
USURBIL

IKASTETXETAKO GELA ETA JOLAS LEKUAK BETE DIRA

96/97 IKASTURTEKO MATRIKULA DATUAK

96/97	HAUR HEZKUNTZA (0-6)	LEHEN HEZKUNTZA (6-12)	D.B.H. (12-14)
UDARREGI	117	187	79
AGERIALDE	13	33	28 (Landaberrin)

Azken urteotan ikasle kopurua ez da asko aldatu, baina ikasturte hone-tan Agerialde eta Udarregin hez-kuntza erreformak zenbait alda-keta ekarri ditu. Ikastolan Derrigo-rrezko Bigarren Hezkuntza ezarri den bitartean, Agerialde irakas-kuntza hori gabe geratu da. *"Ikastetxe publiko bezala, jarrai-pena Lasarte-Oriako Kaxkarro ikastetxean ezarri ziguten"* azaldu digu Mikel Zinkunegi Agerialdeko zuzendariak *"baina han A eta B ereduak zeudenez, guk Landaberri institutura pasatzea eskatu genuen, B eta D ereduak eskaintzen zituen ikastetxera"*. Azkenean, hala gertatu da, eta

Agerialdetik Landaberrira joan diren 28 ikasletatik lauk D ere-duan ikasiko dute. *"Dena dela, ez dute derrigorrez Landa-berrira joan beharrik, batzuk Donostiara ere joan dira"*.

Agerialdetik Udarregira, ordea, ez inor joan, Juanjo Gomez zuzendariak esandakoaren ara-bera, ikastolako D ereduko maila-rik ez zeukatelako.

Bestalde, ikastolan DBHko lehen zikloa martxan dago DBHren ezarpenak aldaketa handirik ez duela suposatu esan digu Juanjo Gomez zuzendaria, lehendik ere aukerako gaiak bazeudelako: Antzerkia, Bideo eta Argazkigin-

tza, Prentsa, Sukaldaritza eta aur-ten gehitu den Frantsesa *"Frantsesa ezik beste gaiek bost hilabeteko iraupena izango dute, eta horrela kurtso bakoitzean bi arlo desberdin ezagutzeko auke-ra izango du ikasleak. Gaitasunak aberasteko aukera ematen du gai desberdinak ezagutzeak, eta hori da gure helburua."*

Irakaskuntza ertainak

Lasarte-Oriako Institutuan ikasle kopuruak behera egin badu ere, Lanbide Eskolan mantendu egin dela komentatu digu Iñaki Mujika zuzendariak. *"3.BBB eta UBiko ikas-le asko etortzen da hona. Asigna-tura amankomunak baliozkota-tuta dauzkate eta irteera profe-sional baten bila etortzen dira. Aurten 130 inguru izan dira Zubietara etorri direnak"*. Horregatik, matrikuletan oso murrizketa txikia jasan du Lanbide Eskolak.

Bestalde, REMen B eta D ere-duak igo egin direla aipatu digu. Eta Lanbide Heziketan D eredu-a Arekin parekatu dela, euskaraz-ko gelak kurtso guztietan daude-larik.

		DENETARA	USURBILDARRAK EREDUKA	
LASARTEKO B.I. (15-18)		582	94	A17
				B19
				D58
USURBILGO LANBIDE ESKOLA (14-19)	IEE (REM) (14-16)	254	65	A3
				B17
				D34
	LH (FP) (17-19)	468	62	A23
				B0
				D38

NAHASTEA ETA ZALAPARTA ESKUBALOIAN

Joan den larunbatean, urriaren 5ean, ezohizko gertakaria ikusi ahal izan genuen Oiardo Kiroldegian. Usurbil eskubaloia taldeko zenbait jokalaria ohi porteri batean kateatu ziren, 2. nazionalako Usurbil eta UPVk jokatzeko zuten neurketan. Ekintza honen arrazoa, 1. probintzialako taldearen desagertzea, eta kanpoan gelditu diren jokalarien desadostasuna direktiba eta entrenatzaileekin.

Irailaren lehenengo igandean hasi ohi dituzte entrenamenduak Usurbil Kirol Elkarteko helduen taldeak. Aurten ere, ohitura ez galtze arren, irailaren 1ean ekin zioten 96-97 denboraldiari. Azken urteetan bi talde izan dituzte helduetan Usurbil Kirol Elkartek: 2. nazionala eta 1. probintziala, eta denboraldi honetan, hasiera batean biak aurrera ateratzea zuen helburu direktibak.

Hala ere, kanpoan gelditu diren jokalaria ez datoz bat azken esaldi horrekin. Beraiekin ustez direktibak aurrez pentsatua zuen 1. probintzialako taldearen desagertzea. Taldea desagertu ondoren, beste Usurbilgo kirol talde baten bidez jakin zuten direktibaren asmoa. "Kiroldegiko pista erabiltzen zuen kirol talde bati, abuztuaren esan zitzaion aurten pista erabiltzeko denbora gehiago izango zutela, eskubaloiko talde bat desagertu egingo zela eta. Gure ustez, honek garbi uzten du direkti-

baren jokaera".

Esteban Iribar batzarkidearen esanetan, iaz bezala, taldea aurrera ateratzeko asmoa zuten, baina entrenamenduen hasieratik nabaritu zuten 1. probintzialako jokalarien jarrera eskaxa. "Irailaren 1ean, igandean, egin zen lehen saiora jokalaria bakarra agertu zen. Ondoren, hurrengo egunean hastekoak zirela jakin genuen. Astelehena iritsi zen, eta 6 jokalaria soilik ager-

an entrenatu zutenak. Gainera, entrenatzaileak zerrenda aurkeztean, zortzi jokalaria horien izenak besterik ez zeuden, beste jokalaria ohi batzuk ahal zutenean etorriko zirela entrenatzaileari hitza eman bazioten ere. Honela bada, taldea aurrera ateratzeko gutxienez 12 jokalaria behar izaten direnez, 1. probintzialako taldea erretiratu egin genuen epea amaitu aurretik".



tzeaz gain, entrenamendu egunak aldatzea erabaki zuten, asteburuko entrenamendua ezabatuz".

1. mailan jokatzeari uko

Iritsi zen irailaren 9a, 1. probintzialan jokatu nahi ez duten taldeak uko egiteko, Gipuzkoako Eskubaloia federakuntzak jarritako epea. Direktibaren arabera, egun horretan ez zegoen nahikoa jokalaria taldea ateratzeko. "Irailaren 5ean entrenatzaileari jakinarazi genion jokalarien zerrenda aurkeztu behar zuela. Irailaren 9an zortzi jokalaria ziren gutxienez egun bate-

Talderik gabe gelditu diren jokalaria harrিতa gelditu ziren erabaki honekin. "Probintzialako taldea osatzeko zenbait arazo izan genituen arren, jokatzeko prest zeuden 13 bildu ginen. Uko egiteko epea bete baino aste-bete lehenago, 13 izenez osaturiko zerrenda eman genuen, eta bapatean entrenatzen ari ginela, orain denok dakigun berria ematen zaigu: aurten ez

dago 2. probintzialako talderik. Zergatik? Bi talde ateratzeko dagoen jokalaria kopuru urriagatik".

Eta gu zer? Hori zen kanpoan gelditu ziren sei jokalarien galdera. "Usurbil Kirol Taldearen aldetik begirune handiagoo espero genuen -dio Enrike Ulik- nik adibidez, ia 16 urte egin ditut Usurbil K. E. an, eta uste dut errespetu haundiagoo merezi dudala. Beste batzuei berriz, kirol talde honetan jarraitzeko aukera ukatu zaie, aurrez elkarte honentzat jokatu, lesioa izan zutelako. Honela,

oraingoan jokalaria bati fitxa ez zioten egin nahi berriz lesio-
tzeko arriskua zegoelako.

Direktibak ematen duen ikus-
puntua guztiz bestelakoa da.
Hauen esanetan taldea dese-
gitean, bi jokalaria 2. nazionale-
ra pasa zituzten zuzenean, eta
gainerantzekoei ere, talde
horrekin entrenatzeko aukera
eman zitzaien. "1. probintziale-
ko entrenatzaileari esan genion
gure asmoen berri jokalariei
emateko. Honela, zuzenean
goiko taldera pasatako jokala-
riez gain, beste bi hasi ziren
entrenatzen. Beraz, desagertu-
tako taldeko lau jokalarik 2.
nazionalarekin jardun dute, eta
gaur egun taldean jokatzen ari
dira. Taldea desagertu ondo-
ren entrenatzera etorri diren
guztiei egin zaie fitxa.
Gainerantzeko lau jokalaria ez
dira azaldu, ez entrenatzera, ez
eta gurekin hitzegitera. Irailaren
28an egin zen Batzar nagusira
ere ez ziren azaldu".

Fitxa egiteko aukerarik ez

Bestalde, kanpoan gelditu
diren jokalaria, beste talde
batekin fitxa egiteko aukerarik
ez zaiela eman kexatzen dira.
"Taldea ezabatzeko erabakia
azken momentuan hartu zute-
nez, ez genuen beste talde
bat sortzeko aukerarik izan, ez
eta gainerantzeko taldeetan
fitxa egiteko ere. Beraz, direkti-
ba da gure egoeraren errudu-
na". Azken batean, jokalaria
hauen ustez, 2. nazionaleko
entrenatzailea eta direktibako
bi kide dira Usurbil Kirol
Taldean erabakiak hartzen
dituztenak. Elkarre osoa
hauen esku dagoela uste
dute, eta larunbateko ekintza-
ren bidez hori ere salatu nahi
izan zuten.

Direktibak ez du ulertzen
hauek esandakoa. Fitxak aur-
kezteko epea 97ko otsailaren
7an amaitzen dela diote, eta
ez dute uste aukera gabe utzi
zituztenik. Bestalde, entrena-
tzailearen kontua ez dakite
zertara datorren, hau ez baita
beraien entrenatzailea.



"DIREKTIBA ETA ENTRENATZAILEARI ESKER GAUDE, GAU- DEN BEZALA"

Urriaren 5ean gertatu zen.
Usurbil K. E. eta UPV taldeak,
2. nazionaleko partidua joka-
tzen ari ziren Oiardo kirolde-
gian. 20. minutuan, eta usurbil-
darrak 3-6 galtzen ari zirene-
an, bi jokalaria ohi sartu ziren
kantxara bi motxilekin; motxila
batetik katea atera zuten,
porteriko bi posteei beren
buruak lotuz; ondoren, beste
motxilatik "direktiba eta entre-
natzaileari esker gaude, gau-
den bezala" irakur zitekeen
pankarta atera zuten. Bien
bitartean, epaileek jokoa gel-
ditzen zuten bitartean, har-
mailetan beste jokalaria ohiek,
beraien egoera agertzen zuen
idazkia banatu zuten. Nahiz

eta Esteban Iribar delegatuak
eta 2.nazionaleko kapitainak
hauekin hitz egin, ez zuten
ezer lortu. Bien bitartean por-
terian gero eta jende gehiago
bildu zen, jokalaria ohiei elkar-
tasuna adieraziz, bai hauen
lagunak eta baita momentu
hartan neurketa jokatzen ari
ziren Usurbilgo jokalaria ere.
Azkenean, udaltzainak etorri
behar izan zuen kateak moz-
tera. Direktibaren esanetan,
aurten bete dira 33 urte elkar-
tea sortu zenetik, eta inoiz ez
zen honelakorik gertatu. 45
minutu iraun zuen protesta
ekintza honek zigorren bat
ekar dezake federazioaren
aldetik.





Ezezagun batzuk tren geltokia erasotu dute

Pasa den irailaren 25ean, ezezagun batzuk, burua estalita zutela, tren geltoki-ko arduradunaren bulegoari su eman zioten molotov koktelen bidez.

Honen ondorioz, bulegoko hormak erabat kiskalita gelditu ziren, bertan zegoen materialaren antzera. Honekin batera, txartel-leihatilako kristala ere hautsi zuten.

Donostiako suhiltzaileek sua

itzaltzeaz gain, bertan bizi den familia etxetik atera behar izan zu-ten.

Egin egunkarira eginiko dei baten bidez errebindikatu zuten ekintza hau, euskal preso eta borrokalarien oroimenez egin-dako eraso izan zela esanez.

Eusko Trenak adierazitakoaren arabera, ekintza honek kostu materialak izango ditu, baina zerbitzuaren kalitatean ere era-gina izango du.

Independentzia Eguneko ospakizunak Iparraldeari begira

Usurbilgo Udalak 1992ko irailaren 14ean Euskal Herriaren

Independentzia-ren aldeko mozioa onartu zuen. Urte bere-ko azaroaren 21ean

Independentziaren eguna

ospatu zen. Lau urte berandua-go egun hori berreskuratzeko

lanean hasi dira herriko hainbat talde.

Aste betez luzatuko da ospa-kizuna, urriaren 14tik 20rako asteen ekitaldi desberdinak izango direlarik.

Ospakizunaren helburua gure baitan dugun lurraldetasun

kontzeptua indartzea da.

Aurten, Iparraldera hurbiltzeko saiakera egitea pentsatu da, eta antolatutako ekitaldiek Iparraldeko errealitatea izango dute oinarri. Herriko talde ezberdinek bere alorrean ipa-rraldeari dagokion ekitaldi bana antolatu du.



Errotonda berriko hagina gaixotuta

Errotonda berriko haginak **Phytophthora** gaixotasu-na du eta ihartzen hasi da. Zainetan sortu zaizkion on-ddoen ondorioz ezin du elikatu eta izerdirik kanporatu.

Irailean lurra, zainak, hosto-ak... Eusko Jaularitzako Osasun sailera eraman ziren analisiak egiteko. Geroztik, fungizida tra-

tamendu desberdinak egin za-izkio. Belgikatik ekarri zuten hagina, eta arazo honekin kez-katuta omen daude. Erosketan bitartekaritza egin zuten kata-lanak ere ikustera etorriko dira.

Hala ere, ez dakigu sendatu-ko den, eguraldi hezeak ere ez omen dio batere mesederik egiten eta.

SUNBELTZ
TABERNA

Eguneroko menuak
Bokañak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 37 25 60

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

Lb T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42

Altzari
berritze

Urdaia errota
Txoko alde

Tlf.-Fax 36 62 22

Anton Pagola Goldarazena usurbildar **intsumitua**, urriaren 16an **epaitu-ko dute** Donostiako Auzitegi Nagusiko Instrukzio epaitegian. Anttonek ez du lelulorik eramango, eta ofizio-ko abokatuaren bidez egingo du bere defentsa.

Usurbilgo Udalak herriko **merkataritzan egungo euskararen egoera aztertzeko beka** plazaratu du. Beka hau jasotzeko interesa duzenok lau baldintza hauek hartu beharko dituzue kontutan:

-Azken bost urteetan Usurbilen erroldatua egotea.

-Soziologia alorreko ikasketak burutuak izatea.

-Usurbilgo merkataritza arloan euskararen egoerari buruzko proiektua aurkeztea.

-Lanak euskaraz burutzea.

Eskaerak aurkezteko epea urriaren 26an bukatuko da.



Antonio Maria Murua y Samaniego, "**Usurbilgo markesa**", eta honekin batera, Usurbilgo baserri askoren jabea, irailaren 15ean hil zen. Besteak beste, bereak ziren Konporttoenea, Arroxeña, Juanantzonea, Olarri, Potxonea, Urteaga, Karteroenea eta Jauregia.



Txakurrak ere albiste dira porrusaldan, izan ere **txakur eder bat** jaso du udaltzaingoak. Orain dela bi aste agertu zen Santuenea inguruan, eta azken aste honetan udaltzaingoaren zaindaritzapean egon da. Ez dauka txip-ik, ez dakigu norena den. Etxean jaso nahi duen edonor udaltzaingora joan daiteke.

Ramon Uribe usurbildar presoak kartzelaz aldatu dute. Destino aldaketan, Ocaña 1 espetxetik Segoviara eraman dute orain dela gutxi. Helbide berria: Ramon Uribe Navarro, Ctro. de Cumplimiento Segovia. Avd. Juan Carlos I, nº 7. Aptdo. 113. 40.009 Segovia.

Michelin enpresak plan soziala aurkeztu ondoren sindikatuak bilera egin zuten enpresarekin urriaren 8an. Bertan, urriaren 16an **erreferenduma** egi-tea erabaki zen. Hemen, plan sozialari baietza edo ezetza emango zaio.

Susana Martin herritarrak kale-ratu berri den Begoña Ameztayren "**El derby vasco**" **liburaren maketazioa** egin eta ilustrazioetan ere parte hartu du. **Noauai**ko maketazioailearen lanak leku askotan ikusiko ditugu hemendik aurrera.

KIROL KOPLA



Haritz
Zubiaur

Kurtsua mar-txan jarri da jadanik, eta kirol albisteak ere abiadan datoz. Eguneroko bizitzan bezala, denetarik egon da, emaitza onak, kaxkarrak, eta bestelakoak.

Juan Inaxio Unanue "Ringok", Zaragoza aldean, plater tiraketa-ko munduko txapelketan bere abilezia agerian utzi zuen, eta laugarren postua eskuratu zuen. Bejoindezula!

Usurbil Futbol Taldea osatzen duten talde ezberdinek partiduak izan zituzten pasa den asteburuan. Kadeteek irabazi, jubenilek nahiz errejonalek berdindu, eta neskak galdu egin zuten Zarautzko Lizari taldearen aurka. Aupa neskak!

Eguraldi txarrak ere bere agerpena egin zuen, larunbatean, Andatzpe Peña Pagola eta Arretxabaletak jokatu behar zuten pelota neurketa Loiolan jokatuaz. Ea noiz jartzen diguten estalki berri eta egokia.

Ikastolako kirol taldeak ere laister hasiko dira partiduak jokatzen. Aurten ere aukera zabala izango da, futbola, atletismoa, sokatira, eskubaloia etab. Hala ere, haur hauek kirolari onak izateko monitore edo entrenatzaile beharra izaten dute, eta hauen premia handia da.

Laister arte.

IGERIKETA IKASTAROAK NAHI ADINA

Itsasorik ez du Usurbilek. Ilbaia zikin samarra aukerari igeri egin nahiz ikasteko. Baina Oiardo Kiroldegia ireki zutenetik, igerilekuak betetzen ditu aurretik aipaturiko gabeziak.

Aspaldi amaitu zen hondartzara joan, eta igeri ez jakitearen ondorioz eguzkia hartzen gelditu beharra; edo eta igeri egiten ikasteko haurrekin Hernani edo Zarautza joan beharra. Orain dela bost urtetik hona, Oiardo kiroldegia mota guztietako igeriketa ikastaroak eskaintzen ditu.

Haurrek, gazteek, helduek, denek dute lekua ikastaro hauetan. Maite Zubeldia igeriketa irakasleak aipatu digunez, gaur egun talde ugari ari dira ikastaroak egiten. "Hiru hilabetetik hamalau urte arte lau talde ezberdin ditugu. Helduen taldea ere badago, eta hauez gain, ur ludoteka nahiz igeriketa eskolan beste bi talde mantentzen dira. Helduetan bakarrik izan da jeitsiera, besteetan gainezka gabiltza".



Jadanik gutxi dira igerilekuko ikastaroak dastatu ez dituzten haurrak. Bi hilabete betetzearekin batera uretan sartzen dituzte, eta txiki-txikitatik galtzen diote errespetua urari. Haurrei zuzendutako ikastaro honek arrakasta handia duela dio Maite Zubeldiak. "Hiru hilabetetik eta bi urte bitartekoak Usurbil eta Hernaniko kiroldegian ibiltzen dira soilik. Hori dela eta, Zarautz, Andoain, Orio eta Lasartearrak ere etortzen dira".

Adinekoak ere ezin ahaztu. Gizon nahiz emakume ugari izan dira igeri egiten ikasi dutenak, eta oraindik ere hamarreko taldea horizaten da goizero.

Hala ere dena ez da igeri ikastea. Aspalditik dute igeriketa taldea sortzeko asmoa, eta horretan dihardute. Zortzi eta hamaika urte bitarteko haurrekin lanean dabilta, eta etorkizunean txapelketetan arituko den taldea sortzea dute helburu.



Barruko arropa-lanak eta

etxeko arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87

xabier
arregiategia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2

Tlf. 36 40 58



BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santuenaga 23
Tlf. 36 27 34



Iazko neguan, euskararen egoerak kezkatzen zituen gazte batzuk deialdia egin zuten gai honen inguruko talde bat sortzeko asmoarekin. Era honetan sortu zen Usurbilgo Euskal Herrian Euskaraz taldea.

Taldearen esanetan, *"nahiz eta Usurbil herri nahiko euskalduna izan, ez du esan nahi era honetako arazorik ez duenik. Adibide gisa jaritzeko, oraindik ezin dugu medikuarekin ditugun harremanak euskaraz izan, edo konstruktoreek kartelak gazteleraz jaritzen dituzte. Orain denek beren propaganda euskaraz egiteko eskakera luzatzen edo guztiz erderaz dagoena sala-*

tzen aritu gara. Azken finean ulertu behar dugu Euskal herrian gaudela eta eskubidea dugula gure bizitzako esparru guztietan euskaraz funtzionatzeko".

Oraindik nahiko talde berria dela eta beste herrietako taldeek egiten dutenari jarraitzen dio Usurbilgo EHEk, baina behin martxa hartzean beren dinamika propioa izango dutela adierazten dute. Hala ere, Independentzia eguneko astean euskalkien erakusketa prestatzen dabilta eta alfabetatze kanpainian ere burubelarri sartuak daude.

EHEkoek aukera ona dela eta ezin izan dute orri hau aprobetxatu gabe utzi. Horregatik, beren erakundeak urriak 12an Donostian antolatu duen manifestazio nazionalako gonbidapena luzatu nahi izan dute: *"Euskal herri libre eta euskalduna nahi duten usurbildar guztiei deialdia egiten diegu manifestazioa joateko".*



Usurbilgo Trikiti Eskola: haziz doan harrobia



Lehen bikoteka jotzeko ohitura bazegoen ere, gaur egun taldeak osatzeko joera zabaltzen ari dela adierazi digu Juan Tapiak.

Esku soinu eta panderoa hartuta, Usurbilgo Trikiti Eskolakoak hasi dira berriro ere irrintzika. Kurtso hasiera honetan, Juan Tapiak soinu-jole eta irakaslearekin egoteko aukera izan dugu, eta eskola honen historiaren berri eman digu.

"Orain dela 20 urte inguru hasi zen nire aita Eleuterio zena Usurbila etortzen. Garai hartan etxez-etxe ibiltzen zen eta sei ikasle inguru zituen. Geroxeago Kalezarko Azpietxen biltzen ziren". Baina Eleuterio hil ondoren Juanek hartu zuen erreleboa eta udalari lokal bat eskatu eta gero, Kalezarko Udarreki ikastolako lokaletan hasi zen bera.

Ordurako ikasle kopurua 25era igoa zegoen, eta Juanek Ander Aranzazistroki eta Oskar Estanga hartu zituen laguntzaile modura. Dena dela, azken laupabost urtetan Zumarte musika eskolan biltzen dira trikitilari eta panderojoleak. *"Momentu honetan 35 ikasle inguru dabilta. Astean hiru egunetan etortzen naiz. Laguntzaileen artean, aurreko biez gain, Agurtzane Alkorta ere panderoa erakusten dabil azken bi urteotan".*

Taldeka zein binaka herriko festetan eta gainerantzeko ekitaldietan hor izaten ditugu herriko trikitilariak. Hemendik aurrera ere ez dira geldirik egongo eta gure zeregina dantza pixka bat egi-tea izango da!



URRIAK 12 larunbata

*Aginagako festak aurrera jarraitzen dute. Gaur, PRESO ETA ERREFUXIATUEN EGUNA:

-12.00etan: Usurbilgo dantzari txikiak.

-16.00etan: XVI. MUS TXA-PELKETA Aginaga mailan.

-17.30etan: GOAZ Antzerki Taldea "LARRIALDIAK" antzezlanarekin.

-21.00etan: HERRI AFARIA bertsolari eta trikitilarien laguntzarekin.

-0.00etan: Dantzaldia IZOTZ taldearekin.

-1.00ean: Preso eta Errefuxiatuen aldeko omenaldia.

*Nesken Eskubaloiko Jubenilen taldeak partidua: Usurbil - Hernani E.T. Goizeko 10.00etan.

*Bigarren Nazionaleko eskubaloiko taldearen partidua: Usurbil K.E- Deusto.

*Bigarren erregionaleko futbol partidua: Usurbil- Loiolako. Haranen.

*Futboleko bigarren kadeeten partidua: Hernani- Usurbil.

*Neskek futbol partidua jokatu dute: Almen- Usurbil.

URRIAK 13 igandea

*Aginagako festak,

6tik 14 urte bitarteko haurrek Dantza Taldean izen emateko aukera izango dute urriaren 17 eta 18an Udaregi zaharrearantz arratsaldeko 16.30etatik 19.00 arte.



Sagardo Eguna:

-17.00tan:

Sagardo dastaketa. Partehartzaileak: Aginaga eta Urdaira (Aginaga), Saizar eta Ilumbe (Usurbil), Araeta (Zubietza), Izagirre (Añorga), Otsua-enea, Akarregi, Rufino, Eizmendi eta Iparragirre (Hernani), Gartziategi, Lizeaga eta Larrarte (Astigarraga).

Giroa bertsolari eta trikitilarien kontura.

-21.00tan: Jaiei amaiera emateko ETZAKIT taldearen dantzaldia.

*Bigarren Jubenileko futbol partidua: Usurbil-Ostadar.

URRIAK 14 astelehena

*Baque esku-pilota Torneoa. Mikel Kastresana (Andatzpe Peña Pagola) Artanoren aurka. Loiolan 19.00etan.

*Euskal Herria Askatu!ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.

URRIAK 16 asteazkena

*Gizarte Ongizate Departamenduak antolatutako, "Anorexia eta bulimia" ikastaroa ANARE Psikoterapia Zentruaren eskutik. Udaletxean arratsaldeko 18.00etan.

*Baque Torneoa. Arkaitz Izagirre (Andatzpe Peña Pagola)- Treku (Oiartzun).

**Noaua!-ren alde bazaude eta etxean jaso nahi baldin baduzu
EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

enda

Loiolan 19.00tan.

*Baque Torneo. Imanol Zarautz (Andatzpe Peña Pagola)- Elizegi (Oiertzun).
LOiolan 19.00tan.

URRIAK 17 osteguna

*Hirugarren adinari Zuzendutako Txarlen barnean, "Osasun oneko pertsona zahar-
raren elikadura eta manten-
dura" hitzaldia izango da
Udaletxean.

URRIAK 18 ostirala

*Gure Pakea Zahar Egoitzakoak Arantzazura egin-
go dute irteera eta ondoren
Araunen bazkalduko dute.

*Kadete eskubaloit taldeak
partidua: Usurbil K.M- basauri.
Arratsaldeko 16.00etan.

*Jubenileko eskubaloit tal-
deak partidua: Usurbil J.M-
basauri. Arratsaldeko
17.30etan.

*Lenengo nazionaleko fut-
bol aretoko partidua: Futbola
Antxeta- Aloña mendi.
Arratsaldeko 19.00etan.

*Inter Club esku-pilota
Txapelketa. Segurako-
Andatzpe Peña Pagola.
Seguran jokatu da.

*Eskuz binaka 4 t' erdian
txapelketa. 21.00tatik aurrera

frontoian.

URRIAK 19 larunbata

*Bigarren erregionaleko fut-
bol partidua: Texas Lasarte-
Usurbil.

*Bigarren jubenileko futbol
partidua: Euskalduna- Usurbil.

*Nesken futbol partidua:
Usurbil- Zumaiako. Haranen.

*URRIAK 21 astelehena

*Euskal Herrian Askatutaren
konzentrazioa errotodan.
Arratsaldeko 20.00tan.

URRIAK 23 Asteazkena

*Gizarte Ongizate
Departamenduak antolatuta,
"Anorexia eta bulimia"ri buruz-
ko ikastaroa Udaletxean.
Arratsaldeko 18.00etan.

URRIAK 24 osteguna

*Hirugarren Adinari
Zuzendutako txarlen barnean,
"Burmuineko zahartzapena"
hitzaldia izango da
Udaletxean arratsaldeko

18.30etan.

URRIAK 25 ostirala

*SENIDEAK-en manifesta-
zioa arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK


*Euskal Herriko Arantxa ize-
neko emakumeen erromesal-
dia egingo dute Arantzazura
urriaren 19an. Izena eman
nahi dutenak urriaren 11
baino lehen egin dezatela
telefono hauetara deituz:

Telf: 78 13 04 edo 78 13 02

*Usurbilgo Udal Plenoak
Usurbilgo merkataritzan euska-
rak duen egoera aztertze-
ko BEKA bat plazaratu du. intere-
satua dagoen edonor urriaren
26 arte du epea eskaera egi-
teko.

* Urriaren 13an Etxarri
Aranazen ospatuko den
NAFARROA OINEZ-erako
laguntzaileak behar dira. Inork
lagundu nahiko balu, deitu
beza Udarregi ikastolara.

Buztin Zulo
Keramika Taldeak
urriaren 25ean ireki-
ko du bere eskula-
nen erakusketa
Udarregi Zaharrean.
Erakusketa ikusgai
izango da asteburu
guztian. Goizetan
11.00etatik
14.00etara, eta
arratsaldez 18.00
21.00etara.





Usurbilgo txoko eta bazterren zuen ezagutza norainokoa den jakin nahi dugu ale honetako lehiaketarekin.

Aizu! Jakin, jakingo duzu Usurbilek bazituela zentral elektrikoak ere. Baina esaiguzu: Santuenetik Zubietarako bidean dagoen zentral elektrikoak, gaur egun erreta dagoenak,

Nola du izena?

Hori da jakin nahi duguna. Erantzunak urriaren 21a baino lehen bidali beharko dituzue ondoko helbidera:

Noaua! aldizkaria, Kale Nagusia 27, 20170 Usurbil. Edo zuzenean gure buzoira bota ditzakezue zuen lehiaketa erantzunak.

Asmatzaileen artean **ARRATZAIN SAGARDOTEGIAN** bi lagunentzat afaria zozketatuko da.



Irudian ikus dezakezuen bezala **Jabier Salsamendik** eman zion **Axen Pagolari** azken lehiaketako saria. Ea bada gustokiak dituzun **Patriko** sukaldeko jakiak.

Azken 15 egunetan, jende asko ibili omen da eskaile-
retan gora eta behera. Hori da behintzat gure kronis-
tek esan digutena. Gu ere ibili gara eta hau da
ontzat emango dugun erantzuna:

Kalezarko eskailerak 141 maila ditu.

Egia da, urbanizazio berriarekin maila bat izan daite-
keena badagoela, baina hau ez dugu ontzat eman-
go, ez baita eskailera maila bat.

Arrate Zahar Egoitzako afaria **Jaione Azpirozi** egokitu
zaio. Zorionak eta on egin dizula!



Iban Salsamendi

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

20170
USURBIL



HARPIDIE TXARTEEA 5000 PEZETAK URTE OGORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

ARRATZain

SAGARDOTEGIA

bazkariak eta afariak



Zerbitzu atsegin eta paregabea

BEREZITASUNAK

Albizturgo babarrunak
Aza eta baserriko odolkiak
Zaldibiko mondejoak

SAGARDOTEGI KO MENUA

Bakailaoa
eta
Haragia



Uneentzat jolas-leku lasai eta aparta

MAPA

URRIAREN 10etik
AURRERA
ZABALIK

Sabela bete nahi duenarentzat, izango da zer